

Ebazpena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan desabantaila-egoeran dauden kolektiboetako pertsonentzat enplegurako orientazio-ekintzak egin eta -zerbitzuak emateko laguntzen 2017ko aurkeztutako eskaera bat ezetsizat jotzen duena.

Espedientea: 2017/COLEC/000006

IKUSI da goian aipatutako erreferentziadun espedientearen aurkeztutako eskaria, eta kontuan hartu dira honako

GERTAERAK

Lehena.- 2017/11/30ean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere webgunean (www.lanbide.euskadi.eus) argitaratu zuen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan desabantaila-egoeran dauden kolektiboetako pertsonentzat enplegurako orientazio-ekintzak egin eta -zerbitzuak emateko laguntzen 2017ko deialdiaren babespean aurkeztu ziren eskarien artean osorik beteta ez zeuden edo nahitaezko dokumentazioaren bat falta zuten horien zerrenda, 10 egun balioduneko epean zuzen zitezten, aipatu zerrenda webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Halaber, hala egin ezean beren eskarian atzera egin zutela ulertuko zela jakinarazi zen, deialdiaren 7.4. artikulua araberara.

Bigarrena.- Epea amaitu da, eta erakunde bat ez du eskatutako dokumentazioa aurkeztu.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren eskumena da espediente hau ebaztea, maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak onartzen dituenak) 10.2.j artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak) 68.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunak administrazio-prozedura batean ez badu hutsa zuzentzen edo ez baditu eskatu zaizkion nahitaezko agiriak aurkezten, eskarian atzera egin duela ulertuko da, 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera emango den ebazpena ezarri ondoren.

Horrenbestez,

IKUSITA aipatu lege-xedapenak eta orokorrean aplikatu beharreko gainerakoak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak, dagozkion eskumenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehena.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan desabantaila-egoeran dauden kolektiboetako pertsonentzat enplegurako orientazio-ekintzak egin eta -zerbitzuak emateko laguntzen 2017ko deialdiaren babespean, jarraian aipatzen den erakundea aurkeztu duen eskaria atzera egin duela aitortzea, eta, beraz, eskari horrek prozeduran duen partaidetza amaitutzat ematea:

- Asoc. AGIANTZA ELKARTEA
Nº Expediente: 2017/COLEC/000006

Bigarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, eta, horretarako, Lanbideren webgunean (www.lanbide.euskadi.eus) argitaratzea. Halaber, berariaz jakinaraziko da ebazpen horrek amaiera ematen diola administrazio-bideari, eta berorren aurka hautazko berraztertze errekurtsoa jarri ahalko dela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren aurrean, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo administrazioarekiko auzien errekurtsoa jarri ahalko dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 21ean



BORJA BELANDIA FRADEJAS

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia